

Liburuak

KRITIKA

Steinbeck: shock eragilea

Helduen literatura | ELEBERRIA

Saioa Ruiz Gonzalez

ELEBERRIA amaitu eta zuzenean ekin behar izan diot idazteari. Laster batean irakurri ditut John Steinbeck-en eleberria osatzen duten 158 orrialdeak, eta amaierako kolpeak eragin didan emozio nahasketari ordena ezarri nahian nabil oraindik. *Shock* egoeran sentitzen naiz. Horrelakoa da Steinbeck jauna, hasieratik liluragarria eta amaieran harrigarria. Erakusten duen joera humanistak, AEBetako literaturaren zutarrri garrantzitsuenen lekuan kokatzen du.

Saguak eta gizonak istorio tragikoa da, arina irakurtzeko baina irensteko zail suertatzen den horietakoa. Halakoxea agertzen baita idazle amerikarra; bortizki errealista eta engaiatua.

1929ko Beheraldi ekonomikoaren ostean, Kalifornian barrena rantxoz rantxo herraturik ibili ziren mutilen erretratua eskaintzen digu. Baina gure harri-durarako, garai hartan bakardadean bidaiatzen zuten gizonen orde, idazleak bikote berezia sortu du. Lennie, mozko atzeratu-eskizofrenikoa, eta George,


bere aspaldiko lagun eta aingeru zaindaria. Bien arteko babes erlazioan errotuz joango da eleberriarren zentzu tragikoa.

Irakurketan zehar nabaritu ditudan sentazioei erreparatuz,

eleberria bi zatitan banatuko nuke: lehen partea deskriptiboa antzeman dut, nekazal mundu maskulinoa nola egituratzen den kontatzeari ekiten baitio. Elkarriketen nagusitasunak mota ezberdinetako pertsonaiak txertatzeko aukera ematen du, egitura sozialaren irudia marraztuz. Hala ere, pertsonaia eta espazio ezberdinen kontraste bidezko tratamendu bikainak, gizarte horretako balore ziztrinenak azaleratzen ditu. Zentzu horretan, rantxoan bertan egiten den ahul/indartsu, txuri/beltz, zahar/gazte, gizon/emakume edota barne/kanpo bereizketak, sexu zein arrazaren arabera hierarkizazio sozialaren ispilu dira.

Bigarren zatian, aldiz, ekintza kateatuek bereganatzen dute protagonismoa. Narrazioaren abiadura azkartzearekin batera tentsioa ere areagotuz doa, eta amaiera tragikoa sinbolizatzen duten elementuak izango dira nagusi. Hastapenean deskribatzen den espazio zabal eta argitsua, orain espazio itxi itogarria bilakatu da. Bertan ikusten dugu Lennie txakur jaio berriei maite-maite egiten, hala egiten baitu azal leun eta iletsua duen ororekin. Bat-batean txakurren mugimendua eten egiten da eta Lenniek ez du zergatia ulertzen, ez baitu alboan bere aingeru zaindaria.

Jarraian datozen eszenak izugarri bortitzak dira, errukitasun eta karga emotibo sakonez zipriztindurik. Lennieren heriotzara arte ez dago etenik. Kontua ez da zer gertatzen den, baizik eta nola. Nolakotasun horretan ezkutatzen baita, sentitzera gonbidatzen zaituztedan *shock*-aren muina.



Saguak eta gizonak.
John Steinbeck.
Itzultzailea: Iñigo Errasti.
Alberdania, 2012.



ANDRA MARI
restaurant

Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com

